

## AGORA BUKAERA: Filosofia defentsa

Eskertu nahi dizuet ekitaldi honetan parte hartzera gonbidatu izana. Bere garaian, gogo onez onartu nuen gonbidapena. Ez da arlo profesionalean gai hauen inguruan nire iritzia emateko bereziki gai sentitzen naizelako, baizik eta, izandako esperientziagatik, argi dudalako filosofia-ikasketak komenigarriak direla osotasunez bizitzeko.

Gaitasun-eza ez da itxurazko apaltasuna, paradoxikoki nire jarduera ikertzailearekin lotuta dagoen zerbait baizik. Whitehead filosofo ingelesak dioen bezala, ikertzaile zientifikoek, jakintsuek edo “*scholarrak*” ez bezala, ez dugu ulertzeko aurkitu nahi, baizik aurkitzeko ulertu. Eta, horretarako, berehala beharrezkoa da ahalik eta bizkorren ezezagunaren muga jarriko gaituen prestakuntza barneratzea. Cajalek zioen bezala, liburuxka berri batekin liburutegira ekarpena egiten duena goraiatzen dugu, liburutegia buruan daramanaren orde. Hori dela eta, ez dugu gure denbora ematen galdera orokorrekin, “gaur zerk arduratzen gaitu” eta mota horretako galderekin, alegia. Gaurko mahai-inguruan dudak konpainia paregabeak lasaitzen nau eta, ni bidean galtzea saihestuko du zalantzarik gabe.

Filosofia irakasteak, bereziki, eta mundu anglosaxoian arte liberal esaten zaiena irakasteak, oro har, pentsatzen, idazten eta komunikatzen erakusten digu. Horregatik, arriskutsua da ikasketak hauek baztertu, zientziako, teknologiko, ingeniarietako eta matematikako ikasketak bereizi, eta hauek garrantzitsuagoak direla irakastea. Zientzialariak gara humanismo klasikoa eskoletako eta unibertsitateetako kurrikuluetatik kentzen interes gutxien dugunak .

Zientzia duela 25 bat mende sortu zuten greziar filosofoek, jakin-minak eta mirespenak gizakia filosofatzera eraman zutenean, mitoa baztertu eta arrazoia erabiliz egun oinarrizkoak iruditzen zaizkigun arazoei irtenbidea eman nahian. Haien arrakastak unibertsoaren razionaltasunean zuten sinesgarritasuna sendotu zuen. Zientziarik gogorrena, fisika, filosofia natural gisa irakasten zen duela mende batera arte. Horrela hasi zen zientzia, filosofia gisa. Filosofia zientzia izatera pasatzen da egiaztapen esperimentala dagoenean. Esperimentua da egia zientifikoaren epaile bakarra, “*Nullius in verba*” da Royal Societyren mottoa.

Esperimentuari egokitze hori zientziaren funtsezko ezaugarri bati dago lotuta, progresuari: aurrekoetan oinarritu eta osatuz hobetzean alegia. Gaur egun kontuan ere ez dira hartzen Aristotelesek objektuen erortzeari buruz zituen iritzia. Aldiz, haren ekarpen ugari eztabaidatzen dira etika, politika eta erretorikaren arloetan.

Eremuen arteko bereizketa gero eta lausoagoa da... Hans Magnus Ezensbergerren esanetan. “Zientziak metafisikaren lekua hartu du. Gaur egun, laborategi handietan, unibertsoaren jatorriari edo materiaren oinarrizko osagaiei buruzko galdera zaharrak egiten dira (...).

Zientzia garaiezina da bere arloan. Baina ezin du handik kanpokorik erabaki. Zientziak, adibidez, ez du erantzunik bizitzaren zentzuaz. *Zergatik dago zerbait ezerezaren orde?* *Zertarako eta zergatik existitzen gara?* Halako galderak ez dute erantzun zientifikorik. Ez dut uste filosofiak erantzun garbia eman dezakeenik, baina ziur nago galdera argitzen eta gehiago zehazten lagun diezagukeela. Galdera filosofikoagoekin osa daitezkeen galdera zientifikoak ere badaude. Denbora eta espazioa leherketa handi batekin sortu zirela uste dugu. Hau imajinatzeko gaitasunak berak antzinako sinesmenetan oinarritutako mito ausartenak gainditzen ditu. Denboraren poderioz, eboluzioak egungo unibertsoa sortu duela uste dugu, ongi ezagutzen ditugun legeak jarraituz. Baina oraindik ere bizirik dirau hurrengo galderak: *Zergatik existitzen dira lege horiek eta ez beste batzuk?* Joxe Arregi teologoak bere buruari galdetu dio *ea ez den posible, printzipioz, egun indarrean dauden eraikuntza teorikoak ez diren beste batzuk egitea, beste zientzia batzuk, beste fisika batzuk*. Esperimentuarekin ados dauden bitartean, inork ez ditu baztertuko, baina ez dugu ahaztu behar esperimentuak berak eraman gaituela, hain zuzen ere, egungo eraikuntzara. Badago beste galdera bat, *esperimentera errepikatuko balitz soluzioa berbera izango litzateke?* Ni ezetz esatera ausartuko nintzateke, konplexutasuna beste modu batera azalerratu litzatekeela.

Zientziak baditu mugak. Zentzuaz eta abarrez hitz egiterakoan ikusi dugu hori. Baditu muga absolutuak ere, eta horietako bik inplikazio filosofiko sakonak dituzte. Heisenberg-en indeterminazioaren printzipioak gure jakiteko gaitasunean ezartzen dituen mugak eragina du filosofia deterministen oinarrietan. Godelen teorema, zeinak gure ondorioztatze logikorako gaitasuna mugatzen duen, dio egia ezin dela guztiz atzeman sistema logiko edo filosofiko batean. Godel: ez dago aritmetikaren axiomatizaziorik aldi berean sendoa eta osoa izango denik.

Hilbert-en ametsak zapuzten ditu. Bere epitafioko hitzak, "Jakini nahi dugu, jakingo dugu". Problema matematiko guztiek soluzio matematikoa dute, ez dago ignorabimus-ik.

Askorentzat agian, gaur egungo filosofia, jarduera espezializatua, eruditua eta oso abstraktua da. Baina ez da horrela izan beti. Antzinako filosofia, mendebaldekoa eta ekialdekoa -hemen eurozentrismoa saihestu behar dugu- giza existentziaren eta gizakion sinesmenen inguruan hausnartzea baino ez zen, bizitza bizitzeko bide hobea aurkitze aldera: gida etikoa.

Filosofia hori dago guztion eskura gaur egun.

Erraz eskura ditzakegu antzinako filosofo askoren lanak. Erraz irakurtzen dira, eta jakituriaz beteta daude. Aristotelesek erakutsi zigun, gizakion bereizgarria arrazoiak izanik, bizimodu onena arrazoitua dela; norberak bere kabuz pentsatu eta hartutako erabaki eta ekintzen erantzule izatea. Filosofo estoikoek erakutsi ziguten ausart jokatu behar genuela kontrolatzen ez ditugun gauzen aurrean, hala nola, heriotzaren edo

tsunamien aurrean. Eta kontrola ditzakegunak, aldiz, pasioak eta beldurrak esaterako, menderatu egin behar ditugula.

Filosofia akuilu zaio pentsamolde argiari, besteen ikuspegiak eta iritziak entzuten erakusten du, burua irekitzera eta erabakitzen dugunaren erantzule izatera animatzen gaitu. Gaur egungo gehiegizko informazioak inoiz baino garrantzitsuago egiten du pentsamolde kritikorako gaitasuna lortzea.

Ezin hobeto dator *Ellioten koroaren* hurrengo aipamena: *“Non dago informazioan galdutako jakintza? Non dago jakintzan galdutako jakituria?”*

Filosofiak ezin digu esan gure bizitza nola bizi xehetasun osoz, baina bizitza osotasunez eta zentzuz bizitzen lagun diezaguke. Galderak egiten erakusten digu, galderak aldatzen, eta ikasteko modu desberdinak ikasten. Arazo etikoen, moralen, erlijiosoen, xedeen eta bideen inguruan irakasten digu. Galdera txikirik ez dagoela erakusten digu. Galileo bere garaiko jakintsu “handiez” inguratuta zegoen. Betiko galderen erantzunen bila zebiltzanez: nondik gatoz? Nora goaz (euskaldunok non bazkalduko dugu gehituko genioke). Baina berak mundua aldatu zuen bola plano inklinatuan nola erortzen den galdetuta.

Filosofiak eta honek eragindako eraldaketa teorikoak mundua, pertsonen arteko harremanak eta bizitza ulertzeko moduan, eragin praktiko erabilgarriak ditu bizitza errealean, ideien historiak fede ematen duen bezala. Ez al dago, bada, Hobbes Estatu absolutuaren kontzeptio teorikoaren atzean, edo Weber eta Locke Estatu Liberalaren eratze-prozesuaren atzean? Hortaz ez ohartzea gauzak ausaz gertatzen direla pentsatzea da, baina izatez, botere politikoko ereduak ere ez daude ideia filosofikoetatik at.

Ezingo dugu gaur egun bizitza onik eduki pentsamolde kritikoaren gaitasunak ikasi gabe; besteak beste, arazoak konpondu, erabakiak hartu eta pentsamendu kreatibo izateko gitasunak. Sormena eta irudimena da gero eta gehiago hezkuntza sistemak eman beharko duena.

Pozten naiz filosofia-ikasketak jaso izanaz, eta ez nuke nahi gure gazteek ez edukitzea. Filosofia irakasle ona izan nuen, zorionez, Idelfonso Urkijo kaputxinoa hain zuzen. Filosofia irakaskuntzari eskainitako nire babes-hitz labur hauek filosofiako irakasleen aitormena ere izan nahi dute; buruz ikasi ez, baizik ulertu beharra dagoen ikasgai hau transmititzen dakiten eta niri transmititu didaten irakasleen aitormena. Pertsona bereziak dira, konpromiso sendokoak.. Eskerrak eman nahi dizkiet bihotzez.

Pedro M. Etxenike  
2016ko irailaren 9